

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Cortesko Makil-dantza Nafarroako Kultur Ondasun izendatuko da

Gobernua urtero irailaren 29an egiten den ekitaldi horri babes-maila handiena emango dio, ikusirik "zer garrantzi duen eta zein berezia den"

Martes, 23 de septiembre de 2014

Nafarroako Gobernuak [Cortesko Makil-dantza](#), ondasun immaterial mailan, Kultur Intereseko Ondasun izendatzeko izapideei hasiera eman die, ikusirik "zer garrantzi duen eta zein berezia den". Ekitaldi hori, urtero irailaren 29an antolatzen da udalerrri horretan.

Hala adierazi du gaur goizean prentsaurrekoan bigarren lehendakariorde eta Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin-ek, Cortesko Udalak ekitaldi horri [Kultur Ondarearen Foru Legean](#) aurreikusitako babes-maila handiena emateko eskaera egin ondoren.

Prentsaurrekoan honako hauek ere parte hartu dute: Museoen Ataleko buru Susana Irigaray-k; Cortesko Udaleko Ondarearen zinegotzi Juan Manuel Lacosta-k; eta Makil-dantzako ordezkari Juan Miguel Sánchez-ek. Ekitaldiaren amaieran, Cortesko 35 herritarrek osatutako taldeak kultur adierazpen horren zati bat interpretatu du Iruñeko Carlos III.a etorbidean.

Cortesko Makil-dantza Nafarroako udalerrri horretan egiten den jai-ekitaldi bat da San Migelen eguna dela baliatuz, eta bertan antzerkia, poesia eta dantza uztartzen dira. Artzainen arteko elkarrizketek osatzen dute, ongiaren (aingerua) eta gaizkiaren (deabrua) arteko borroka antzeztzen da, erromantze eta esaerak errezitatzen dira, eta dantza egiten da horretarako makilak eta xingolak erabiliz.

Nafarroako Erribera hegoaldeko beste udalerrri batzuetan ere makil-dantzak zeudela egiaztatzen duten dokumentu historikoak badaude ere (Monteagudo, Ribaforada, Ablitas edo Murchanten, adibidez), Corteskoa izan da gaur arte iraun duen bakarra kanpoko suspertzerik behar izan ez duen eboluzio-prozesu batean.

Cortesko Makil-dantzarekin izaera immaterialeko bost kultur adierazpen izan dira Kultur Ondarearen Foru Legean jasotako babes-maila



Cortesko Makil-dantza, Nafarroako Jauregiaren aurrean.

handieneko izendapena jaso dutenak. Beste laurak honako hauek dira: [Lantzeko inauteriak](#), [Ituren eta Zubietako inauteriak](#), [Hiru Behien Zerga](#) eta [Luzaideko Bolantak](#).

Garrantzia ete berezitasuna

Aipatu denez, Nafarroako Gobernuak espedientea irekitzea onartu du eta, harren arabera, Cortesko Makil-dantza Kultur Intereseko Ondasuna izendatuko du, ondasun immaterial mailan. Hala, Makil-dantza Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunen Erregistroan eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioan inskribatzea ekarriko duen prozedurari hasiera eman zaio, jendaurreko eta Nafarroako Kultur Kontseiluaren txostenaren izapideen ondoren.

Izapide horri hasiera emateko, Nafarroako Gobernuak Makil-dantzaren esanahia kultur identitatearen seinale moduan baloratu du, eta bertan antzematen dira aspaldiko garaietako Erriberako landa-komunitateetako lan nahiz ohituretatik dagoeneko bereizita dauden egungo belaunaldiak. Gainera, eskualde geografiko horretako makil-dantza edo *dancearen* adibide bakarra da eta gaur arte ia etenik egin gabe ospatzen jarraitu dena.

Aipagarria da ere, urteroko ospakizun horrek Cortesko bizilagunek osatutako komunitatea kohesionatzeko eta bertako ordena soziala sendotzeko zer garrantzi duen; bai eta San Migel Arkanjeluaren egunaren inguruko ospakizunaren egiaztapen historiko eta etnografikoa ere mugako herrien zaindari moduan aspaldiko garaietatik.

Beste arrazoi batzuk honako hauek dira: elementu historiko, literario eta etnografikoak bizirik irautea eta antzerki- eta liturgia-forma primitiboek lotutakoak; erreztatutako formulei eta dantzei eustea transmisio naturalaren eta belaunaldien arteko transmisioaren bidez; urtero ekitaldi konplexu bat berregitea bizilagunak beren borondatez inplikatzeko direlako; eta bere ospakizunaren denbora eta espazioko esparruen balio sinbolikoari eustea.

Cortesko Makil-dantza

Kultur elementu erlijioso nahiz profanoak batzen dituen Cortesko Makildantzak Ebro ibaiak ia bere osotasunean daraman dantza-sistemari lotzen zaio, eta Moncayoko Somontanoko *dance* aragoitarrekin (Mallén, Fréscano, Tauste, Gallur, eta abar) antz handia du; antzekotasun hori folkloreak ikertzaileek aztertu izan dute.

Gainera, Pirinioetako artzainen kulturarekin erlazionatzen da bertako makil-dantza eta pastoraden bidez. Horrenbestez, *makil-dantzak* Otsagabiako dantzekin senidetuta dago, gaur egun emakumeek interpretatutako dantza arabarrek, Iruñeko San Lorenzoko dantzekin eta Kataluniako *balls dels palitrocs* edo *bastoniersen* dantzekin, bai eta, era orokorragoan, Iberiar Penintsula guztian ezagunak eta sarritan egiten diren dantza eta bertsoen hainbat eta hainbat funtzioekin ere.

Makil-dantza horren barnean, Cortesko gazteek zati bat antzeztu eta beste bat dantzatu egiten dute, eta dantza horiek beren borondatez dantzatzeko dituzte. Dramatizatutako zatiaren barnean, ondorengo uneak bereizten dira:

- Pastorada: bertsotan egindako elkarrizketa bat morroi nagusiaren eta artzain nagusiaren artean. Elementu zaharrena dirudi, agian XVI. mendean du jatorria, nahiz eta zenbait egilek dioten harremana izan dezakeela XIV. mendeko moralitasunaren Erdi Aroko antzerkiarekin eta misterioekin.

- Entremesa: morroi nagusi, artzain nagusi eta deabruaren arteko elkarrizketa.

- San Migel Arkanjeluaren autoa: deabruaren (gaizkiaren ordezkari) eta aingeruaren (ongia) arteko borrokaren antzezpena, azken horren garaipenarekin. Doktrinamendu hori XV. eta XV: mendearen artean sortu zen eta, elizatik kanpoko antzerki guztiak bezala, garapen ikusgarria izan zuen Gorpuzti-egunaren ospakizunetik aurrera.

- Esaerak: morroi nagusi, artzain nagusi eta deabruak okasiorako osatutako bertsoak. Urtean zehar Cortesen bizitako gertakariak era alai eta satirikoan jasotzen dituzte. Gaurkotarako gaiak, eguneroko bizitako gertaerak tratatzen dituzte eta banakoak, agintariak eta gizarte osoa kritikatzeko dute.

Azkenik, Makil-dantzaren dantza-zatia da, zalantzarik gabe, ezagunena Cortesetik at eta dantza-talde askoren errepertorioan dago. Bi xingola-dantzek eta beste bi makil-dantzek osatzen dute, "kortesiak" eta "pasio"-ez gain, makil-dantzarien talde batek aldi berean egiten dituztenak.

Jatorria non duten argi ez badago ere, dantza horiek nekazaritza-egutegian funtsezkoak ziren momentuak atari zabalean ospatzeko baserriko tradizioei lotzen direla uste da. Gogoratu behar da, makilekin egindako dantzak hainbat lekutako *dance*, dantza eta kontradantzetan agertzen direla.

Emakumeen parte-hartzea

Jatorrian Cortesko Makil-dantzaren antzezpena osorik gizonak egiten bazuten ere, aingeruaren pertsonaia salbu neskatila batek egiten zuena, emakumeen parte-hartzea era natural batean egin zen XX. mendearen erdialdera. Hala, kultur adierazpen hori zaindu eta transmititzeko benetako beharrari erantzuten zitzaion, baita kultur mailako beste arrazoi batzuei ere, une hartan desagertzeko zer arrisku zuen ikusita.

Hau da, Cortesko emakumeak izan ziren kultur ondasun horren transmisioaz arduratu zirenak, eta haien parte hartzea komunitateak emakumeek izandako inplikazioaren aitortpen modura onartu zuen. 2013. urtean emakume batek hartu zuen estreinako morroi nagusiaren papera; hala, beste mugarri bat jarri zen Cortesko Makil-dantzaren transmisio eta eboluzioaren prozesu dinamiko horretan.